



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko martxoaren 28a

51. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 10-23/MOC-00002. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira 46. EUCOCOaren amaierako adierazpena babes dezaten. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak onetsia (3. or.).
- 10-23/MOC-00021. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak salatzen du Peruko herria Peruko indar armatuen aldetik bizitzen ari den errepresioa. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak onetsia (3. or.).
- 10-23/MOC-00022. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion jarrera proaktiboa izaten jarraitu eta hura areagotu dezan eta bere ahalmen diplomatiko guztia baliatu dezan Kolonbiako Gobernuaren aitzinean, bake prozesuari jarritako oztupoak desagerrarazteko eta helburu hori bera planteatzen dezan Europar Batasunaren esparruan. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak onetsia (4. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 42/2023 Ebazpena, martxoaren 23koa, zeinaren bidez 14 idatzizko galdera sartzen baitira martxoaren 28rako deituta dagoen Eskubide Sozialetako bilkuran, ahoz erantzun daitezkeen (6. or.).
- 10-22/PES-00335. Galdera, Housing First programa abiarazi zenez geroztik bertan sartu diren etxebizitzetako buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 10-22/PES-00336. Galdera, 2018az geroztik Gizarteratzeko Alokairuko Etxebizitzaren programara (GAE) atxikitako etxebizitza libreei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 10-22/PES-00337. Galdera, Nafarroako pobrezia eta gizarte desberdinkeria buruzko VI. txosteneko 18. taulari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 10-22/PES-00338. Galdera, Nafarroako pobrezia eta gizarte-desberdinkeria buruzko VI. txostenean jasotako “hala ere, datuek adierazten dute Nafarroan izandako ondorioak ez direla Estatu osokoak bezain larriak” baieztapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

- 10-22/PES-00339. Galdera, Nafarroako pobrezia eta gizarte-desberdinkeriari buruzko VI. txostenaren 9. taulari (“Mugikortasuna Nafarroan diru-sarrezin dezilen arabera, 2019 eta 2020 bitarte”) buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 10-22/PES-00340. Galdera, Nafarroako pobrezia eta gizarte-desberdinkeriari buruzko VI. txostenaren jasotako “hala ere, datuek adierazten dute Nafarroan izandako ondorioak ez direla Estatu osoan bezain larriak” baieztapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 10-22/PES-00341. Galdera, futbolaren alorreko indarkeria prebenitzeari dagokionez Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak egindako ekintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 10-22/PES-00342. Galdera, Izagaondoan dagoen Legingo gazteluaren eremu arkeologikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 10-22/PES-00343. Galdera, Magnesitas Navarrak Artesiagan (Erdiz) eginen duen proiektuari buruz azaroaren 20an egitekoak diren kontsulten legezketasunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 10-22/PES-00344. Galdera, atletismoko pista estali bat eraikitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 10-22/PES-00345. Galdera, Burlatako atletismo-pistaren ondoan eraikin berri bat eraikitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 10-22/PES-00346. Galdera, familia gurasobakarren baimena luzatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 10-22/PES-00347. Galdera, Nafarroako Ubideko eremu ureztagarrietan ureztalur bihurtzeko eta lurzati berrantolamendurako prozesuaren izapideen egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 10-22/PES-00348. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen obrak lizitatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 10-22/PES-00349. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen proiektuari buruz hitz egite aldera Eboko Konfederazio Hidrografiko lehendakariarekin egindako bileran Lurralde Kohesiorako kontseilaria egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 10-22/PES-00350. Galdera, Frankismoarekin lotutako pertsonen gainean Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak onetsitako behin-behineko eroldari eta NUPEk pertsona horien beraien gainean prestatutako izendegiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 10-22/PES-00351. Galdera, legegintzaldirako programa-akordioak osasun arloan biltzen duen neurri bakoitzaren betetze egoerari eta graduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 10-22/PES-00352. Galdera, 2 motako diabetesa duten pertsonen flash sentsoak finantzatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- 10-22/PES-00353. Galdera, INFONA 2022 Plana-Baso Suteek eragindako Larrialdietarako Babes Zibileko Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- 10-22/PES-00354. Galdera, Salhaketa Nafarroak Barañaingo pisu batean presoak gizarteratzeko bultzatzen duen programa psiko-hezkuntzakoak auzoen artean sorrarazitako eragozpeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-23/MOC-00002. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira 46. EUCOCOaren amaierako adierazpena babes dezaten.

BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak 2023ko martxoaren 22an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen baitira 46. EUCOCOaren amaierako adierazpena babes dezaten. Honako hau du testua:

“Nafarroako Parlamentuak:

Babesa erakusten dio 46. EUCOCO Konferen-tziaren amaierako adierazpenari.

Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gober-nua premiatzen ditu 46. EUCOCOren amaierako adierazpenaren aldeko babesa adieraz dezaten”.

Iruñean, 2023ko martxoaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-23/MOC-00021. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak salatzen du Peruko herria Peruko indar armatuen aldetik bizitzen ari den errepresioa.

BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artiku-luan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Par-lamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak 2023ko martxoaren 22an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak salatzen baitu Peruko herria Peruko indar armatuen aldetik bizi-tzen ari den errepresioa. Honako hau du testua:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Salatzen du Peruko herria Peruko indar armatuen aldetik bizitzen ari den errepresioa.

2. Nazioarteari dei egiten dio bitarteko izan dadin atxilotuen eskubideak babesten direla bermatze aldera, defendatzeko eskubidea ezin dutelako baliatu.

3. Espainiako Gobernua premiatzen du dikta-dura horren konplize izateari utz diezaion eta, har-tara, bertan behera utz dezan de facto gobernua jasotzen ari den gerra-armen eta errepresiorako materialen bidalketa, zeinak bere desadostasuna erakuste aldera kalera ateratzen diren herritarrak erreprimitzeko baliatzen ari baitira.

4. Gobernua premiatzen du buruzagi sindikale-kiko, nekazarietarako, indigenekiko, ikasleekiko nahiz gainerako gizarte-mugimenduekiko elkarri-zketak tresnak sor ditzan de facto.

5. Premiatzen du baliabideak jar daitezten garapenerako lankidetzarako eta biktimei nahiz biktimen familiei laguntza humanitaria emateko. Bai eta gure lurraldeetan lan hori egiten ari diren organizazioei laguntza eman diezaien ere, masa-kre hori guztia salatzen dela bermatzeko.

6. Premiatzen du begirale nazionalen nahiz nazioarteko batzordeak susta daitezzen han bertan bizitzeko eta Peruk egun bizi duen egoera ezagutzeko.

7. Premiatzen du hauteskunde garden batzuen prozesuan lagun egitea ahalbidetu dadin.

8. Eskatzen du gizarte orok merezi eta behar duen justizia soziala nahiz giza eskubideen eta

balio demokratikoen defentsa. Hortaz, nazioarteko justiziako instantziei, gobernuko botereei, gizarte-mugimenduei eta gizarte zibilari eskatzen diegu errepresio eta masakre honen aurka azal daitezzen”.

Iruñean, 2023ko martxoaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-23/MOC-00022. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion jarrera proaktiboa izaten jarraitu eta hura areagotu dezan eta bere ahalmen diplomatiko guztia baliatu dezan Kolonbiako Gobernuaren aitzinean, bake prozesuari jarritako oztopoak desagerrarazteko eta helburu hori bera planteatzen dezan Europar Batasunaren esparruan.

BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak 2023ko martxoaren 22an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernuari eska diezaion jarrera proaktiboa izaten jarraitu eta hura areagotu dezan eta bere ahalmen diplomatiko guztia baliatu dezan Kolonbiako Gobernuaren aitzinean, bake prozesuari jarritako oztopoak desagerrarazteko eta helburu hori bera planteatzen dezan Europar Batasunaren esparruan. Honako hau du testua:

“1- Nafarroako Parlamentuak:

a) Babes argia adierazten die bake prozesuari, egiarako, justiziarako, erreparaziorako eta errepikapenik ezerako sistema integralari, zeinen parte baita Egia Argitzeko Batzordea, Bake Jurisdikzio Bereziari eta Desagertutzat emandako Pertsonak bilatzeko Unitateari; eta dei egiten du –akordioa sinatu zenetik sei urte joan diren honetan– gatazka behin betiko amaitzeko akordioaren alderdi guztiak oso-osorik ezartzera, bake justu eta iraunkorra egon ahal izateko.

b) Adierazten du bat datorrela eta konpromisoa duela Kolonbiako Gobernu berriak iragarritako erabateko bakearen helburuarekin.

c) Bat dator ELNrekin elkarrizketak berriz hasiteko prozesuaren balorazio positiboarekin, gataz-

karen behin betiko eta negoziatutako irteera lortzeko helburuarekin, haren egiturazko kausei erantzun integrala emanez, eta abegi ona egiten dio gobernu berriak legez kanpoko egitura armatu guztiei egindako deiari, amaieran horien guztien desagertzea ekarriko duen prozesu bat abiatzeko.

d) Konpromisoa adierazten du Kolonbiako Kongresuarekin eta haren Bake Batzordearekin lankidetzan eta trukean aritzeko.

2- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuari honako hau eska diezaion:

a) Jarrera proaktiboa izaten jarraitu eta hura areagotu dezan eta bere ahalmen diplomatiko guztia baliatu dezan Kolonbiako Gobernuaren aitzinean, bake prozesuari jarritako oztopoak desagerrarazteko eta helburu hori bera planteatzen dezan Europar Batasunaren esparruan.

b) Nazioarteko babesa eskatzen duten errefuxiatu kolonbiarrak babesteko asilo politikarekin jarraitu eta hura hobetu dezan, eta indartu ditzan bai arrisku-egoeran dauden giza eskubideen defendatzaileak babesteko programak eta ekimenak, bai eskubideak defendatzen dituzten kolektibo eta komunitateei lurraldean bertan laguntzen dieten nazioarteko lankidetzaren arloko politikak.

3- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuarengana jo dezan, horrek bete egin dezan Ibero-

merikar Aferen Batzordeak onetsitako erabaki-proposamena:

a) Kolonbiak erabateko bakearen erdiespenerako dituen ahaleginekiko konpromisoari eustea. Aipatu konpromisoak Kolonbiako Gobernu berriak iragarri ditu.

b) Bere jarrera proaktiboa areagotu dezan eta bere ahalmen diplomatiko guztia erabil dezan Kolonbiako Gobernuarekin, bake-prozesuaren oztopo guztiak kentze aldera.

c) Sinatu zenetik sei urte igarotzean aldeztu dezan gatazka behin betiko amaitzeko Akordioaren alderdi guztiak oso-osorik ezartzea, herri hartan bake justu eta iraunkorra egon ahal izateko.

d) Segi dezan duda-mударik gabeko babesa ematen bake prozesuari eta, bereziki, egiarako, justiziarako, erreparazioarako eta errepikapenik ezerako sistema integralari, zeinen parte baita Egia Argitzeko Batzordea, eta, lana amaitu duen une zehatz honetan, haren Legatuari, Bake Jurisdikzio Berezia eta Desagertutzat emandako Pertsonak bilatzeko Unitatea.

e) Segi dezan sostengua ematen, nazioarteko lankidetzazko eta diplomaziazko bideei helduz, Bake Akordioaren eta bake-agenda berriaren

ezarpenari, bai eta egiturazko desberdinkerien aurka lurralde-mahai humanitarioak bezalako lurralde-ikuspegizko borrokari, etnia-ikuspegizkoari eta genero-ikuspegizkoari.

f) Aldeztu dezan, Nazio Batuen ildo berean, Nazio Askapenerako Armadarekiko elkarrizketei berrekin dakiela, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa oinarri hartuz, gatazkarako behin betiko irtenbide negoziatua lortze aldera, horren kausa egiturazkoei erantzun integrala emanaz; halaber, legez kanpoko egitura armatu guztiei horien desagerpenerainoko prozesu baten alde Gobernuak eginiko deiarri sostengua eman diezaion.

g) Gobernu honek Asilo Bulegoan hasitako hobekuntzei jarraipena ematea, asilo-sistemari eraginkortasun eta babes handiagoa ematekoei.

h) Kolonbiako Kongresuarekiko lankidetzarako eta trukerako konpromisoa azal dezan, batez ere haren Bake Batzordearekikoa, Kolonbian Erabateko Bakea eraikitze beharrezkoa den orotan. Halaber, nork bere ordezkaritza-esparrutik ekintza bateratuak koordinatzen segi dezan".

Iruñean, 2023ko martxoaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 42/2023 Ebazpena, martxoaren 23koa, zeinaren bidez 14 idatzizko galdera sartzen baitira martxoaren 28rako deituta dagoen Eskubide Sozietako bilkuran, ahoz erantzun daitezten.

Navarra Suma talde parlamentarioko Jorge Esparza Garrido jaunak eskatzen du ahoz erantzuteko galdera bihur daitezzen bere garaian idatzizko erantzuna jasotzeko egin zituenak —ondoren aipatuko dira—, hamabost egun baino gehiago iragan baitira Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zirenetik Nafarroako Gobernuak Parlamentura erantzunik bidali gabe.

Kontuan izanda Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194.2 artikulua ezartzen duela galderen idatzizko erantzuna galdera argitaratu eta hurrengo hamabost egunen barruan eman beharko dela, eta Lehendakariari honi agintzen diola, aipatu epean Gobernuak erantzunik bidali ez badu, eta galdegileak horrela eskatuta, kasuan kasuko batzordearen hurrengo bilkuraren gai zerrendan sartzea, eta hori dela Jorge Esparza Garrido jaunak egindako eskaeran aipatzen den galderen kasua —galderak erabaki honekin batera erantzen dira—, hona ERABAKIA:

1. Agintzen da heldu den martxoaren 28an 12:15ean Eskubide Sozietako Batzordeak egiten duen bilkurako gai-zerrendan honako galdera hauek sar daitezten, kontseilari eskudunak ahozko erantzuna eman diezaien:

- PES 10-23/PES-00039, 2023ko otsailaren 10eko 23. NPAOn argitaratuta.
- PES 10-23/PES-00040, 2023ko otsailaren 10eko 23. NPAOn argitaratuta.
- PES 10-23/PES-00051, 2023ko otsailaren 10eko 23. NPAOn argitaratuta.

- PES 10-23/PES-00052, 2023ko otsailaren 10eko 23. NPAOn argitaratuta.
- PES 10-23/PES-00058, 2023ko otsailaren 24ko 30. NPAOn argitaratuta.
- PES 10-23/PES-00059, 2023ko otsailaren 24ko 30. NPAOn argitaratuta.
- PES 10-23/PES-00063, 2023ko otsailaren 24ko 30. NPAOn argitaratuta.
- PES 10-23/PES-00064, 2023ko otsailaren 24ko 30. NPAOn argitaratuta.
- PES 10-23/PES-00065, 2023ko otsailaren 24ko 30. NPAOn argitaratuta.
- PES 10-23/PES-00066, 2023ko otsailaren 24ko 30. NPAOn argitaratuta.
- PES 10-23/PES-00069, 2023ko martxoaren 1eko 33. NPAOn argitaratuta.
- PES 10-23/PES-00070, 2023ko martxoaren 1eko 33. NPAOn argitaratuta.
- PES 10-23/PES-00071, 2023ko martxoaren 1eko 33. NPAOn argitaratuta.
- PES 10-23/PES-00072, 2023ko martxoaren 1eko 33. NPAOn argitaratuta.

2. Erabaki hau igortzea Nafarroako Gobernuko Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariari, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/PES-00335. Galdera, *Housing First* programa abiarazi zenez geroztik bertan sartu diren etxebizitzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, *Housing First* programa abiarazi zenez geroztik bertan sartu diren etxebizitzei buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 11ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak 10-22/PES-00335 zenbakiko galdera idatzia egin du. Hori dela-eta, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dio:

1. *Housing First* programan zazpi etxebizitza sartu dira, honela banatuta urtez urte:

URTEA	Zenbat etxebizitza sartu diren
2017	1
2018	1
2019	2
2020	0
2021	2
2022	1
Etxebizitzak, guztira	7

2. Hona hemen udalerrien arabeko banakapena:

UDALERRIAK	Zenbat etxebizitza sartu diren
Iruña	3
Aranguren	1
Antsoain	1
Barañain	1
Zizur Nagusia	1
Etxebizitzak, guztira	7

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 5ean

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

10-22/PES-00336. Galdera, 2018az geroztik Gizarteratzeko Alokairuko Etxebizitzen programara (GAE) atxikitako etxebizitza libreei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2018az geroztik Gizarteratzeko Alokairuko Etxebizitzen programara (GAE) atxikitako etxebizitza libreei buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 11ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak 10-22/PES-00336 zenbakiko galdera idatzia egin du. Hori dela-eta, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dio:

1. Gizarteratzeko Alokairuko Etxebizitzen programara (GAE) 2018az geroztik 24 etxebizitza libre atxiki dira. Hona hemen urtez urteko eta udalerrien arabera kopuruak:

Zenbat etxebizitza sartu diren	2018	2019	2020	2021	2022
UDALERRIA					
Iruña	6	2		2	1
Barañain				1	
Beriain	2				
Berriozar	3				
Burlata			1		
Lizarra			1		
Tutera		2			
Zizur Nagusia		2	1		
Etxebizitzak, guztira	11	6	3	3	1

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 5ean

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

10-22/PES-00337. Galdera, Nafarroako pobrezari eta gizarte desberdinkeriari buruzko VI. txosteneko 18. taulari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako pobrezari eta gizarte desberdinkeriari buruzko VI. txosteneko 18. taulari buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 11ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du Nafarroako pobrezari eta gizarte desberdinkeriari buruzko VI. txosteneko 18. taulari buruz (10-22/PES-00337). Hona Nafarroako

Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Kasu honetan, parlamentariaren galderek adierazten duten bezala, kalkulu akatsa izan da. Zuzendu egingen dugu.

Hemen kontsulta daiteke Pobrezari buruzko txostena:

<https://www.observatoriorealidadsocial.es/eu/ik/erketak/vi-informe-sobre-la-pobreza-y-la-desigualdad-social-en-navarra/es-579297/>

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 13an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-22/PES-00338. Galdera, Nafarroako pobrezari eta gizarte-desberdinkeriari buruzko VI. txostenean jasotako “hala ere, datuek adierazten dute Nafarroan izandako ondorioak ez direla Estatu osokoak bezain larriak” baieztapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako pobrezari eta gizarte-desberdinkeriari buruzko VI. txostenean jasotako “hala ere, datuek adierazten dute Nafarroan izandako ondorioak ez direla Estatu osokoak bezain larriak” baieztapenari buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 18ko 133. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du, Nafarroako pobrezari eta gizarte-desberdinkeriari buruzko VI. txostenean jasotako “hala ere, datuek adierazten dute Nafarroan izandako ondorioak ez direla Estatu osokoak bezain larriak” baieztapena dela-eta (10-22/PES-00338). Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Txostenean jaso diren metodologiaren bitartez bildutako datuak daude baieztapen horren oinarrian. Hala, oro har, Nafarroa, nola edo hala, pobrezia erlatiboaren eta pobrezia larriaren tasa txikiak dituzten autonomia-erkidegoetakoa da. Datuak, metodologiaren arabera:

- Bizi Baldintzei buruzko inkestaren (BBI) araberako kalkulua: 12. taula. Pobrezia arriskuaren tasa autonomia erkidego bakoitzean, atalase autonomikoarekin; 14. taula. Pobrezia larriaren tasa autonomia erkidego bakoitzean, atalase autonomikoarekin

- AROPE tasaren araberako kalkulua: 18. taula. AROPE adierazlearen bilakaera autonomia erkidego bakoitzean; grafikoa: AROPE tasa eta haren dimentsioak autonomia erkidego bakoitzean (2021).

- Giniren indizea: 3. mapa. Giniren indizea autonomia erkidego bakoitzean.

- S80/S20 ratioa: 24. taula. S80/S20 ratioa autonomia erkidego bakoitzean eta EBn

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 13an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-22/PES-00339. Galdera, Nafarroako pobrezia eta gizarte-desberdinkeria buruzko VI. txostenaren 9. taulari (“Mugikortasuna Nafarroan diru-sarreraren dezilen arabera, 2019 eta 2020 bitarte”) buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako pobrezia eta gizarte-desberdinkeria buruzko VI. txostenaren 9. taulari (“Mugikortasuna Nafarroan diru-sarreraren dezilen arabera, 2019 eta 2020 bitarte”) buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 18ko 133. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du Nafarroako pobrezia eta gizarte-desberdinkeria buruzko VI. txostenaren 9. taula (“Mugikortasuna Nafarroan diru-sarreraren dezilen arabera, 2019 eta 2020 bitarte”) dela-eta (10-22/PES-00339). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Diru-sarreraren dezilen arteko mugikortasuna aztertzen duen grafikoa interpretatzeko, lehenik kontuan hartu behar da zenbakitutako zerrenda bakoitzean Nafarroako biztanleriaren % 10 sartzen da. Hain zuzen, 1. zerrendan sartuko litzateke diru-sarrera apalenak dituen Nafarroako biztanleriaren % 10a; 2. zerrendan kokatuko li-

tzateke 1. zerrendakoek baino diru-sarrera handiagoak baina gainerako % 80ek baino apalagoak dituzten Nafarroako biztanleen % 10a, eta abar. Guztira, 10 zerrendek (zerrenda bakoitza dezil bat da) Nafarroako biztanleria osoa hartzen dute. Horiek horrela, 1. eta 2. zerrendak pobrezian dauden pertsonenak dira; 3.etik 8.era bitartekoak (biak barne) klase ertaineko biztanleenak dira; eta 9. eta 10. zerrendak Nafarroako pertsona aberatsenei dagozkie. Zehazki 9. grafikorekin kasuan, irudikatu den agertokia (ezarri diren zerrendek osatua) 2019. urtekoa da.

Pertsonen diru-sarrerak 2019tik 2020ra izandako mugikortasuna argitzeko, 2019ko agertokia hasiera batean 10 zatitan banaturik, dezil bakoitzeko pertsona bakoitzaren diru-sarreraren bilakaeraren jarraipena egin da. Horrela, Nastatek Nafarroako biztanleen errentaren estatistikatik lortutako datuekin, jakin daiteke zenbat pertsonak izan dituzten aurreko urtean baino diru-sarrera handiagoak, zenbatek berdinak eta zenbatek txikiagoak.

9. grafikoko 1 dezila adibide gisa harturik, 2019tik 2020ra horko pertsonen % 69,1 gelditu dira zehatz-mehatz Nafarroako errenta apaleneko biztanleen % 10 horretan (mugitu ez diren kategoria da); % 0,7 pasatu dira aberatsen kategoriara (gogorarazi behar dut aberatsen kategoriako deziletara mugitu izanak esan nahi duela pertsona 9. edo 10. dezilean dagoela); pertsona pobreen % 11,7k diru-sarrerak handitu dituzte, 2019an 1. dezilean egotetik 2020an erdiko deziletako batera

(3.etik 8.era bitartekoak, biak barne) pasatzeko adina; eta gainerakoak (% 18,5) 1. deziletik 2.era mugitu dira, pobreziatik irten gabe baina diru-sarrera handixeagoekin (pobreen bi kategoria baino ez daude, eta 1. dezila baztertuta, talde horretan gelditu direnak mugitu ez direnen kategorian daudelako, ondorioztatu ahal dugu biztanleriaren zati hori 2. dezilera pasatu dela). Analisis

hori berori aplikatzen zaio grafikoko deziletako bakoitzari.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 15ean.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-22/PES-00340. Galdera, Nafarroako pobrezia eta gizarte-desberdinkeria buruzko VI. txostenean jasotako “hala ere, datuek adierazten dute Nafarroan izandako ondorioak ez direla Estatu osokoak bezain larriak” baieztapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako pobrezia eta gizarte-desberdinkeria buruzko VI. txostenean jasotako “hala ere, datuek adierazten dute Nafarroan izandako ondorioak ez direla Estatu osokoak bezain larriak” baieztapenari buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 18ko 133. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du Nafarroako pobrezia eta gizarte-desberdinkeria buruzko VI. txostenaren 31. taula

(“Pobrezia larriaren mugak etxe-tipologiaren arabera, familia-unitateek EBan jasotako kopuruez bezainbatean, 2020an”) dela-eta (10-22/PES-00340). Hona Nafarroako Gobernuaren Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Oker bat izan da. Aldatu egin da 14 urtetik beherako bi adingabe bizi diren etxeen atalasei dagokiona, eta honela gelditu da: “4 helduko, 5 eta 6 pertsona, etxeak, aitzitik, ez ziren iritsi estatuko atalasea.”

<https://www.observatoriorealidadsocial.es/eu/ik-erketak/vi-informe-sobre-la-pobreza-y-la-desigualdad-social-en-navarra/es-579297/>

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 15ean.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-22/PES-00341. Galdera, futbolaren alorreko indarkeria prebenitzeari dagokionez Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak egindako ekintzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, futbolaren alorreko indarkeria prebenitzeari dagokionez Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak egindako ekintzei buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 18ko 133. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak 10-22/PES-00341 idatzizko galdera egin du. Hauxe da horri buruz Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak ematen duen informazioa:

Nafarroako Bizikidetzaren Plan Estrategikoak, 5.2 helburu espezifikoko 89. ekintzan, balioetan hezteko eta kirolguneetan indarkeria prebenitzeko proiektua indartzea eta egitasmo horretan lankidetzan jardutea aurreikusten du. Ekintza horren ardura duten unitateak Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia eta Nafarroako Kirolaren Institutua dira. Ekintza hori 2023. urtean garatzekoa da.

Kirolaren alorrean indarkeriari aurrea hartzeko jarduketegi dagokienez, Nafarroako Kirolaren Institutua da arduraduna.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 14an

Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria: Ana Olló Hualde

10-22/PES-00342. Galdera, Izagaondoan dagoen Legingo gazteluaren eremu arkeologikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Izagaondoan dagoen Legingo gazteluaren eremu arkeologikoari buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 18ko 133. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 10-22/PES-00342 galdera idatzia egin du Legingo gazteluari buruz. Hau da Nafarroako Gobernu Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Izagaondoan dagoen Legingo gazteluaren eremu arkeologikoa Kultur Intereseko Ondare (KIO) izendatzeko eskaerari dagokionez, eskaeraren erantzunean azalduko da nola legeria indardunak dagoeneko aurreikusten duen gaztelu guztiak babestea. Zehazki, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 14/2005 Foru Legearen lehen xedapen gehigarriak honako hau dio:

“1. Interes kulturalerako ondasun deklarazioa duten Nafarroako kultur ondareko ondasunek kalifikazio hori izaten jarraituko dute eta halaxe inskribatuko dira Nafarroako Kultur Ondareko Ondasunen Erregistroan.

2. Espainiako ondare historikoko ondasun higigarrien inbentario orokorrean inskribaturiko Nafarroako kultur ondareko ondasunak zuzenean sartuko dira ondasun inbentariatuaren sailean eta halakotzat inskribatuko Nafarroako Kultur Ondareko Ondasunen Erregistroan.”

Era berean, Espainiako Ondare Historikoari buruzko 16/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarriak hau dio:

“1949ko apirilaren 22ko Dekretuan eta 571/1963 eta 449/1973 dekretuetan jasotako ondasunak ere kultur intereseko ondasuntzat jotzen dira eta lege honetan ezarritako araubidea dute”.

Eta Espainiako Gazteluen Babesari buruzko 1949ko apirilaren 22ko Dekretuak (1949ko 125. BOE, maiatzaren 5ekoa) 1. artikuluan xedatzen duenez, “Espainiako gaztelu guztiak, aurriak izan edo ez, Estatuaren babespean egonen dira eta hark eragotzi eginen du izaera aldatzen dien edo erortzeko arriskuan jartzen dituen edozein eskuhartze”.

Jarduteko aurreikuspenei dagokionez, eskuhartze arkeologiko bat urteko Arkeologia Planean jaso ahal izateko, aztarnategiaren titularrek edo udalak indusketa, zundaketa eta prospekzioa egiteko proposamena eta/edo proiektua aurkeztu beharko dute aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen. Proposamen horrek urriaren 3ko 218/1986 Foru Dekretuaren 4. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu. Dekretu horrek indusketa eta prospekzio arkeologikoetarako lizentziak arautzen ditu (1986ko 126. NAO, urriaren 13koa).

Orain arte ez da proposamenik jaso Izagaondoan dagoen Legingo gazteluaren aurrietan eta ingurunean esku hartzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 14an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

10-22/PES-00343. Galdera, Magnesitas Navarrak Artesiagan (Erdiz) eginen duen proiektuari buruz azaroaren 20an egitekoak diren kontsulten legezkoatasunari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Magnesitas Navarrak Artesiagan (Erdiz) eginen duen proiektuari buruz azaroaren 20an egitekoak diren kontsulten legezkoatasunari buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 18ko 133. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak idatzizko galdera egin du (PES-00343). Hona hemen horri buruz jakinarazi beharrekoa:

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak ez du ahalmenik, ez Nafarroako Parte-hartze Demokra-

tikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legearen babesean ez beste ezein arauen babesean, Nafarroako toki entitate batek herri kontsulta baten inguruan onetsitako mozioa edo publikoki iragarritako beste ezer baimentzeko edo berrikusteko.

Nafarroako toki entitateei foru lege hori aplikatzen zaie departamentu honek aurrez esku hartu gabe.

Toki entitateari dagokio Estatuko Gobernuaren aurretzako baimenaren betekizuna betetzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatu bezala.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko azaroaren 21ean

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguí

10-22/PES-00344. Galdera, atletismoko pista estali bat eraikitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, atletismoko pista estali bat eraikitzeari buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 18ko 133. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatzizko galdera errepikatu bat aurkeztu du (10-22/PES-00344) ea Nafarroako Gobernuak jaso al duen enpresa pribatuen eskaintzarik atletismoko pista estali bat eraiki eta ustiatzeko, eta zer balorazio egiten duen eskaintza horiei buruz. Hau da Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroako Kirolaren Institutuak ez du enpresa pribatuen eskaintzarik jaso atletismoko pista estali bat eraiki eta ustiatzeko. Hori bai, bilera batera

joan da, sustatzaile pribatu batek antolatua 'Nafarroako kirolaren kontzepturako, garapenerako eta kudeaketarako zentro integrala' aurkezteko. Zentroak hauek biltzen zituen:

- Gimnasioak
- Kirol anitzeko aretoak
- Igerilekuak
- Ludoteka
- Taberna-kafetegia
- Aldagelak
- Atletismoko eta erabilera anitzeko pista estalia
- Egoitza eta ikasgelak

Proposamena Iruñeko udal mugartean gartzekoa zen, eta 24 milioi euro inguruko kostua zuen. Sustatzaileak inbertsioaren ehuneko berrogeita hamarreko ekarpen publikoa eskatu zuen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 20an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

10-22/PES-00345. Galdera, Burlatako atletismo-pistaren ondoan eraikin berri bat eraikitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Burlatako atletismo-pistaren ondoan eraikin berri bat eraikitzeari buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 18ko 133. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 10-22/PES-00345 galdera idatzia egin du Burlatako atletismo-pistaren ondoan eraikin berri bat eraiki-

tzeari buruz. Hau da Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Burlatako atletismo-pistetan Nafarroako Gobernuaren jarduketa bakarra izan da 200.000 euroko inbertsioa egitea atletismo-pistak konpondu eta birmoldatzeko, eta ez da inolako ekintzarik planteatu udalaren eraikinean. Halaxe ageri da Kirol Azpiegituren 2022-2025 aldirako Plan Zuzentzailean eta 2022ko aurrekontuei buruzko foru legean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 14an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

10-22/PES-00346. Galdera, familia gurasobakarren baimena luzatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patricia Perales Hurtado andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, familia gurasobakarren baimena luzatzeari buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 18ko 133. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak idatzizko galdera egin du (PES-00346); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Irailaren 27an, mozio bat onetsi zen, aho batez, Nafarroako Parlamentuko Lehendakari-

tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barneko Batzordean; horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du alda dezan Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen Erregelamendua onesten duen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 16. artikulua, halako moldez non baimena beste 17 astez luzatuko baita familia gurasobakarren kasuan.

Mozio horri dagokionez, honako hau jakin nahi dugu:

- Nafarroako Gobernuak beteko al du mozio horretan jasotako eskaria? Eta, hala bada, zer epe finkatu ditu konpromiso hori betetzeko?

Nafarroako Gobernuak familia-mota guztiekiko konpromiso ezin handiagoa dauka; besteak beste, familia gurasobakarrekin. Guraso bakarreko familiek diren familia guztien artean % 10 egiten dute gutxi gorabehera; 10etik 8, emakumeak dira, eta

horietako asko ama ezkongabeak dira, hala erabaki zutelako.

Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legea bete dadin lan egiten du Nafarroako Gobernuak, adingabeen babesaren eta diskriminazio ezaren alde betiere.

Jaiotza-baimenei dagokienez, guraso (ama) bakarreko familietako adingabeek ageriko diskriminazioa pairatzen dute bi gurasoko familietan jaiotako beste adingabe batzuen aldean; izan ere, beste horiek bi gurasoen baimen-asteak baliatzen dituzte zaintzarako, eta Nafarroako Gobernuak jakin badaki egoera hori aldatzeko lan egin behar duela.

Jakina denez, Nafarroa aitzindaria izan zen bizitza pertsonala eta familiarra bateragarriak izan daitezen aldezteko lanean, bi gurasoen arteko erantzunkidetasunaren printzipioa oinarri betiere; halatan, langile publikoen amatasun eta aitatasun baimenak parekatu zituen –17 aste–, foru erkidegoko nahiz estatuko araubidean ezarritako epeak aurreratuta.

Iragan irailaren 27an ebazpen bat onetsi zen batzordean, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatu baitzituen guraso (ama) bakarreko familientzako baimenak zabaldu zituzten. Hemen, Nafarroan, funtzio publikoaren arloko eskumenean aitzina egitera premiatu gintuen. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du alda dezan Nafarroako admi-

nistrazio publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen Erregelamendua onesten duen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 16. artikulua, halako moldez non baimena 17 astez luzatuko baita familia gurasobakarren kasuan.

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du familia gurasobakarretako gurasoentzako amatasun- eta aitatasun-baimenak 32 astera arte luza ditzan".

Nafarroako Parlamentuak ezarritako bide bertsuan, Nafarroako Gobernua prest dago bermatzeko adingabeek eskubidea dutela zaintza baldintza beretan jasotzeko, beren familia-mota zein ere den.

Nafarroako Gobernua prest dago egin beharreko aldaketak egiteko, mozio horretan ezarritako bidean aitzina egiten aldera; halere, gure ustez zuhurragoa da oraingoz itzarotea, familiei buruzko lege proiektuaren eztabaida nahiz beste ekimen parlamentario batzuen bukatu arte, adingabeen denik eta babesik handiena bermatzeko.

Eskertzekoa da zure talde parlamentarioaren interesa, eta aukera hau baliatu nahi dut barkamena eskatzeko, zure galdera idatziaren erantzuna nahi gabe luzatu baita.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 3an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

10-22/PES-00347. Galdera, Nafarroako Ubideko eremu ureztagarrietan ureztalur bihurtzeko eta lurzati berrantolamendurako prozesuaren izapideen egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ubideko eremu ureztagarrietan ureztalur bihurtzeko eta lurzati berrantolamendurako prozesuaren izapideen egoerari buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 25eko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak informazio eskaera egin du Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarrietan lurzatiak berrantolatzeko eta ureztalur bihurtzeko prozesurako izapideen egoerari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak eman beharreko informazioa:

– Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuaren txostena erantsi da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 19an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpeneko eremu osagarriak ez daude Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko ministroaren 2015eko urriaren 29ko Ebazpenak aintzat hartutako azalaren barruan. Ebazpen horren bidez aldatzen dira ltoizko urtegiak (Longidako udal mugartean) Irati ibaitik deribatzen diren azaleko uren ezaugarriak. Ur horiek ureztaketarako erabiltzen dira Nafarroako Ubideko Ureztatzaileen Elkarte Nagusiaren titulartasuneko Nafarroako Ubideko eremu ureztagarrietan. Lurzati berrantolamendurako eta eremu horiek ureztalur bihurtzeko prozesuarekin jarraitu ahal izateko beharrezkoa da jarduketari hasiera emateko foru dekretua onestea –horren barruan legoke interes orokorraren eta onura publikoaren deklarazioa–, eta horrek eskatzen du Estatuko

Administrazio Orokorraren esku-hartzea behar duten zenbait izapide egitea:

1.- Estatuko Administrazio Orokorrak interes orokorreko deklarazioa egitea.

2.- Nafarroako Ubideko Ureztatzaileen Elkartek Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioan izapidetzea egungo emakidaren ezaugarrien aldaketa.

3.- Ebro ibaiaren arroaren plangintza hidrologikoaren hurrengo aldia jasotzea.

4.- Estatuko Administrazio Orokorrak eta Nafarroako Foru Komunitateak Nafarroako Ubidea egiteko duten lankidetzak hitzarmena eguneratzea. Hala, erabaki behar da Nafarroako Ubidearen 1. faseko zabalpeneko eremu osagarriak sartzeko –2019ko martxoaren 27ko udalez gaindiko proiektu sektoriala dagokie–, bai eta Ubideko Ureztatzaileen Elkarteak 1. faseko udalez gaindiko proiektu sektorialean proposaturiko azalera berriak ere, Nafarroako ubideko zati izan daitezkeen ondorio guztietarako, eta 1. faseko, 1. fasearen zabalpeneko eta 2. faseko azalera birbanatzea.

Zertan dira izapide horiek?

Orain arte izapide hauek egin dira:

2017an espediente bat izapidetu eta onetsi zen (2017ko uztailaren 19an onetsi) “Nafarroako Ubidearen 1. fasearen eta haren eremu ureztagarriaren zabalpenaren udalez gaindiko proiektu sektoriala (UPSa)” aldatzeko, hain zuzen ere Egako adarraren trazadura aldatzeko Leringo eta Carcarko udal mugarteetan.

2017an bertan, modu koordinatuan lan eginez, “Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpena. Eremu osagarriak” eremu ureztagarriaren UPSaren aldaketa eta haren ingurumen eraginaren ebaluazioa idatzi ziren.

Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiak, abenduaren 19ko 998E/2018 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpenaren UPSaren aldatetari buruzko ingurumen eraginaren adierazpena egin zuen, eremu osagarri zegoiena.

Nafarroako Gobernuaren 2019ko martxoaren 27ko Erabakiaren bidez behin betiko onetsi zen Nafarroako Ubidearen 1. fasearen eta haren

eremu ureztagarriaren zabalpenaren UPSa aldatzeko espedientea.

Azkenik, azaroaren 4ko 81/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen “Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpenaren” eremu ureztagarriko eremu osagarriak sartzeari Nafarroako Foru Komunitateko Ureztatze Planeko jarduketan zerrendan.

Gaur egun INTIA beste eremu batzuk aztertzen ari da, Ureztatzaileen Elkarte Nagusiak proposatuak 1. fasearen UPSaren barruan.

2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legearen 58. artikulua dioenez, Lurralde Kohesiorako Departamentuari dagozkio Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriaren 1. fasea handitzearen interes orokorreko azpiegiturak eraiki eta ustiatzeko herri-lanen emakidarako kontratuko eskumenak,

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak dituenak Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriko interes orokorreko azpiegituren eraikuntza eta ustiapena arautzen dituen azaroaren 22ko 12/2005 Foru Legeko 3.1 b) artikulua arabera, salbu eta lurzatiak biltzeko prozesuen eta sektore edo eremu bakoitza ureztatzen hasteko adierazpenen eta haien aldaketen gainekoak. Emakida-kontratuko obra-proiektuen eta haien aldaketen onespenezko administratiboa Lurralde Kohesiorako Departamentuak emanen du.

Departamentu eskuduna lan tekniko, ekonomiko eta administratiboak egiten ari da eremu osagarrietako jarduketak emakida-kontratu horretan txertatzeko asmoz. Behin txertatutakoan aurrera egin ahalko da informazio eskaeran aipatutako izapide horietan.

10-22/PES-00348. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen obrak lizitatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen obrak lizitatzeari buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 30eko 138. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak

informazio eskaera aurkeztu du, jakin nahi baitu ea Landa Garapeneko kontseilariak ziurta dezakeen 2023an Nafarroako Ubidearen 2. faseko lanak lizitatuko direla. Hori dela-eta, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak jakinarazten du ez dela bere departamentuaren eskumena Nafarroako Ubidearen II. faseko garraio azpiegitura nagusia lizitatu, adjudikatu eta gauzatzea.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

10-22/PES-00349. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen proiektuari buruz hitz egite aldera Ebroko Konfederazio Hidrografiko lehendakariarekin egindako bileran Lurralde Kohesiorako kontseilaria egoteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen proiektuari buruz hitz egite aldera Ebroko Konfederazio Hidrografiko lehendakariarekin egindako bileran Lurralde Kohesiorako kontseilaria egoteari buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 30eko 138. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitatu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak galdera egin du (10-22/PES-00349), honako hau jakin nahi baitu:

Zergatik egon da Bernardo Ciriza Lurralde Kohesiorako kontseilaria, eta ez Itziar Gómez Nafarroako Ubidearen arduraduna eta kontseilari eskuduna, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen proiektuari buruz hitz egite aldera María Dolores Pascual CHEko lehendakariarekin egin den bilku-

ran? Proiektu hori aste honetan iritsi zaio CHE-Ebroko Konfederazio Hidrografikoari, aztertu eta jendaurrean jartzeko izapidea egin dezan, Transizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak aurrez egindako gainbegiratu bukatu ostean.

Hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariaren erantzuna: lehenik, Nafarroako Ubidearen eraikuntza Canal de Navarra SA (CANASA) estatu sozietate publikoaren esku-mena da. Enpresa horretan partaide dira Nafarroako Foru Komunitatea eta Estatuko Administrazio Orokorra.

Hori dela-eta, esan behar da Lurralde Kohesiorako kontseilaria Nafarroako Ubideko obretarako Estatuaren eta Nafarroaren arteko Jarraipen Batzordeko kide eta CANASako Administrazio Kontseiluko kide dela. Horregatik egon zen iragan azaroaren 18an Ebroko Konfederazio Hidrografikoko lehendakariarekin egin zen bileran.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 23an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

10-22/PES-00350. Galdera, Frankismoarekin lotutako pertsonen gainean Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak onetsitako behin-behineko erroldari eta NUPEk pertsona horien beraien gainean prestatutako izendegiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Frankismoarekin lotutako pertsonen gainean Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak onetsitako behin-behineko erroldari eta NUPEk pertsona horien beraien gainean prestatutako izendegiari buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 30eko 138. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 10-22/PES-00350 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona Herritarrekiko Harremanetako kontseilariaren erantzuna:

NUPen txostena eta Oroimenaren Autobusarena erantsi dira, haiek hartu baitziren oinarritzat Gobernuak Memoria Historikoaren arloko Batzorde Teknikoari egin zion proposamenerako.

Horren harira, esan nahi dut ez dela izen bat bera ere kanpoan utzi, dagoeneko Nafarroako Parlamentuan parlamentarien aurrean adierazi dudana moduan. Txostenetan ageri diren izenek txostenetan dira, horrela behar baitu.

Eta jasorik gera dadin, adierazi nahi dut nola egin zen ikur frankisten behin-behineko errolda onesteko prozedura. Parlamentuan azaldu nuen bezala, Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoaren prozeduran, 2016ko azaroaren 25ean hark aho batez onetsi zituen ikur frankisten behin-behineko errolda eta ikur horiek kentzeko gomendioak. Erroldan jaso dira ikurrak, idazkunak, aipamenak, sariak, izendapenak, ohorezko tituluak eta erregimen frankistarekin lotutako pertsonen gainerako gorespenak.

Batzordean aurkeztu zenean adierazi bezala, errolda Gobernuak Batzordeari egiten zion proposamen bat zen, zenbait txosten oinarri zituena, Nafarroako Unibertsitate Publikoarena tartean,

baina baita Oroimenaren Autobusarena eta hainbat udalek Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiari bidalitako beste batzuk ere. Horregatik, NUPen txostena ez zen txosten bakarra izan, txosten oso baliosu bat baino, eta denak erabili zituen Gobernuak proposamena aurkezteko, behin-behinekoa baina garrantzi handikoa.

Hasieran esan dudana bezala, ez da izen bat bera ere kanpoan utzi. Txostenetan oinarritutako proposamena egin zen. Argazki garrantzitsua baina partziala zen. Hala ere, bizkor jardun beharra zegoen hainbat hamarkadako ahanzturaren ondoren, eta horregatik egin zen behin-behineko proposamena. Gogora ekarri nahi dut nola 1981ean Nafarroako Parlamentuak Nafarroako armarritik gurutze ereinozduna kentzera premiatu zuen, aldeko 42 botorekin eta kontrako 23 botorekin, baina 35 urte itxaron behar izan genuen ereinozduna Nafarroako Jauregiko fatxadatik kendu arte.

Eta errolda behin-behinekoa izan zen, halaber, erantzun honi erantsitako txostenak irekiak direlako eta adierazten dutelako ikerketa gehiago egin behar direla frankismoko beste kargudun batzuen inplikazio zehatz eta egiazkoari buruz, edo hilerri eta ikastetxeetako ikurrei buruz, edo Nafarroako Memoriaren Institutuak udal artxiboetan gorai-pamena bila egin duen bezalako ikerketak, hark agerian jarri baitu Franco ia ehun udalerritako seme kutuna zela; geroko beste lan batzuek argi egin dute kolpe militarren hurrengo egunetan hartutako zenbait udal erabakiri buruz, zeinen bitartez hiru udalerritan (Los Arcos, Martzilla eta Ribaforada) bizilagun batzuk kanporatuak izan baitziren militar matxinatuak sostengatu ez zituzten talde politikoen aldekoak izateagatik.

Behin-behinekoa izan zen, azkenik, izendegiaren kasuan, jakinik txostenetan pertsona gehiago sartu zirela frankismoarekin lotuta egoteagatik, Gobernuak behin-behineko proposamen bat aurkeztu ziolako batzordeari, giza eskubideen urratzeetan parte hartu izanaren irizpidearen arabera aukeratutako pertsonen zerrendarekin. Izan ere, pertsona horiek 1936ko kolpe militarra antolatzen lagundu zuten, edo kolpe militarren ondotik piztutako indarkeria oldean nahiz erregimen diktato-

rialak gero antolatutako errepresioan parte hartu zuten. Horixe izan zen irizpidea pertsonak behin-behineko erroldan sartzeko. Hala dago jasorik aktan eta ondorengo adierazpen publikoetan eta orduko prentsa oharretan.

Geroztik, Gobernua erroldaren jakitun dela adierazten duen gobernu-erabakian ageri den bezala, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusian izan diren bi zuzendari nagusiek, Alvaro Baraibarrek eta Martin Zabazak, erroldaren eguneratzea sustatu izan dute. Hala, behin-behineko erroldan 224 ikur detektatu ziren, eta hortik abiatuta informazio berriei esker 400dik gora ikur eta 100dik gora aipamen eta ohore kendu dira. Toki entitateak izan ohi dira jarduketan arduradunak eta haiekin batera egin da lana, lan diskretua sarritan.

Orain aurrera egiten ari gara eta inguruabar berriak azaldu dira. Aurrera egin dugu beste ikerketa batzuetan. Memoria demokratikoari buruzko lege berria onetsi da, ikur frankistak kentzeko lanaren beharra jasotzen duena. Bizikidetzaren Planak, berriz, ezartzen jarraitu beharreko neurrien artean jaso du 2015ean hasitako lan hau. Gober-

nu honek memoriaren aldeko konpromisoa hartu du, eta Nafarroako Parlamentuak frankismoarekin lotutako pertsonen goraipamenak berrikustea onetsi zuen aldeko 30 botorekin.

Horregatik, jada onetsitakoa eguneratzen jarraitzeaz gain, errolda berrikusi eta handitzeko prozesuari ekinen diogu. Hain zuzen, urtarrilean kontseilari honek deialdia egingen dio Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoari, organo horri baitagokio hasiera ematea departamentuak zuzendaritza nagusiaren bidez errolda eguneratzeko egingen dituen lanei. Izan ere batzordearen ardura baita errolda egitea, Nafarroan 2013an indarrean zegoen Memoria Historikoari buruzko Foru Legearen arabera. Behin batzordeak onetsi ondoren, kontseilari honek Nafarroako Gobernuari helarazi beharko dio errolda.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 23an

Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria: Ana Olló Hualde

10-22/PES-00351. Galdera, legegintzaldirako programa-akordioak osasun arloan biltzen duen neurri bakoitzaren betetze egoerari eta graduari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, legegintzaldirako programa-akordioak osasun arloan biltzen duen neurri bakoitzaren betetze egoerari eta graduari buruzkoa. Galdera 2022ko abenduaren 16ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00351), zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu: “Zehaztu legegin-

tzaldirako programa-akordioak osasun arloan biltzen duen neurri bakoitzaren betetze egoera eta gradua”. Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Gardentasunaren eta kontrol parlamentarioaren mesedetan, Osasun Departamentuak puntuen betetze maila ebaluatu du, eta taula bat erantsi du programa-akordioan bildutako neurrien egungo betetze gradua erakusten duena. Esleitutako 41 ekintzetatik 17 gauzaturik daude, 23 hein batean gauzatu dira edo gauzatzeko ari dira, eta bat ez da gauzatu.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 29an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduña

3.3.1	Osasunari buruzko Foru Lege berria egin, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbidea (O-NOZ) eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua (NOPLOI) modernizatuko dituen, kudeaketa autonomoagoa, arinagoa eta eraginkorra egiteko gaitasun juridikoa eta antolakuntzazkoa emanen duena, eta gaur egungo gizartearen beharrezanetara egokituko dena. Lege horrek kontuan izan beharko ditu, besteak beste, osasun-hezkuntza eta ingurumen- nahiz lan-osasuna.	9	PROZESUAN
3.3.2	O-NOZen (osasun etxeak barne) jardueren kudeaketan, erabakietan, plangintzan, kontrolean eta ebaluazioan parte-hartze sozial, sindikal eta profesionalaren aldeko apustua egin. Osasun kontseiluak berpiztu eta sustatu, haien osaketa eta funtzioak berriz aztertuz, erabakiak hartzeko garaian horizontaltasun handiagoa izateko eta baliabideak koordinatzeko eta udaletako eta eskualdeetako beharrezanak betetzeko gaitasun handiagoa izateko xedez.	9	PROZESUAN
3.3.3	Farmazia-arloan eraginkortasunaren alde egin, beste neurri batzuen artean sendagaien zentzuzko erabilera eta generikoak eta bioantzeoak errezetatzea bultzatuz, bereziki Arreta Espezializatuan, farmako berriei buruzko informazioa zerbitzu publikoaren bidez erregulatuz. Farmazia-industriak profesionalengan eta gaixo-elkarteengan duen eraginari mugak ezarriko zaizkio. Betiere sistema desmedikalizatzeke xedearen bila.	9	AMAITUTA
3.3.4	Arreta bio-psiko-sozialerako eredu bat bultzatu, pertsonen eta komunitatearen beharrei lehentasuna emanen diena, eta osasunaren zaintzaz den bezainbatean ardura partekatua sustatuko duena.	9	PROZESUAN

3.3.5	Premia bereziak dituzten kolektiboetarako Nafarroako plan soziosanitario integrala gaurkotu eta erabat garatu, baliabide nahikoa emanez. Etxeetako arreta soziosanitarioko programa zabaldu, ospitaleratzea eta egoitzan sartzea prebenitzeko eta etxean egotea sustatzeko. Hauskortasuna al bait arinen atzemateko programak hedatu eta errehabilitazio funtzionala hobetu, fisioterapia eta ethez etxeko errehabilitazioa deszentralizatuz.	9	PROZESUAN
3.3.6	Aztertu Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta beste osasun-entitate batzuen artean indarrean dauden itunak eta diagnostiko-proben deribazioak, subsidiarotasun-printzipioa eta baliabide publikoen erabilera egokia oinarritzat harturik, eta salbuespeneko izaera, interes publikoa osagarritasuna bermatuz. Lehentasuna eman zerbitzuaren kalitate-estandarrek, genero-berdintasuna, langile-ratioak eta haien lan-baldintza egokiak bermatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko elkarteekin egindako itunei.	9	PROZESUAN
3.3.7	Osasun publikoa indartu, eta komunitatearen esku-hartzea eta osasuna bultzatu politika orotan honako hauek bezalako jardueren bidez: - Osasunaren sustapena eta Nafarroako Osasun Komunitarioaren Behatokia indartu. - Komunitate-programak garatu, Osasunaren Behatokiak oinarritzko eskualde bakoitzean eta herri bakoitzean atzematen dituen herritarren eta ingurumenaren beharretara egokituriko berariazko neurriekin - Esku-hartze komunitarioko kontseilu soziosanitarioak abian jartzea. 2017-2022 epealdirako Zahartze Aktibo eta Osasungarrirako Nafarroako Estrategiaren Ekintza Plana garatzen jarraitu. - Umeen eta helduen loditasunaren aurkako programak sendotu, ariketa fisikoa sustatzeko plangintza espezifikoa barne. - Klima-aldaketarekin zerikusia duten prebentziozko ekintzak indartu eta egokitu. Osasun-eskolak indartzen jarraitu. - Nafarroa bihotz-osasunaren arloan babestutako erkidego bihurtuko duen plan integrala. Lan-osasunaren arloko politikak eta egiturak sendotu, lan-istripuak gutxitzeko eta lan-eritasunak prebenitzeko, osasun publikoko ikuspegi batekin. - Tabakoarekiko menpekotasuna gutxitzeko eta haurrak tabakismoan ez hasteko neurriak sustatzen jarraitu. - Nafarroako III. Droga eta Adikzio Plana garatu, arreta berezia eskainirik gazte eta nerabeei substantzien (alkohola, tabakoa, kalamua...) kontsumoari dagokionez, baita apustu eta substantziarik gabeko bestelako adikzioei dagokienez ere. Legedi murriztailea areagotu jokoaren alorrean, ikastetxeen inguruneetan ezartzeari dagokionez batik bat. Jokoaren zergetatik jasotako diruaren zati bat bideratu jokoarekiko menpekotasunaren prebentzio- eta tratamendu-programetara. - Osasun publikoko laborategien integrazioa burutu.	9	AMAITUTA
3.3.8	Apustu argia egin osasun-sistemaren ardatza Oinarrizko Osasun Laguntza izan dadin, behar adina finantzatuz; xedea sistemaren baliabideen % 20 horretara bideratzea izanen da. Lantaldeei kudeaketarako autonomia eta erabaki-ahalmen handiagoak emanen zaizkie, eriei behar adinako arreta-denbora eskaintzen zaiela bermatuz, eta izaera integral eta diziplina anitzekoa emanez.	9	PROZESUAN

3.3.9	<p>Oinarrizko Osasun Laguntzaren Estrategia inplementatu, hauek barne:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizko eskualde bakoitzean Oinarrizko Osasun Laguntzako taldeek eskaintzen duten zerbitzu zorroa indartu. - Eskualde arteko ekitatea hobetu, zerbitzuak deszentralizatuz, herritarrak landa-eremuan finkatzea sustatzeko. - Finantzaketa egokia. Aurrekontua nabarmen handitzen jarraitu, osasun-zentroei giza baliabide eta baliabide tekniko nahikoak emanez. - Birdefinitu soslaiak eta estamentu profesionalen egitekoak, eta osasun-langileei lan administratiboa kendu. - Lantaldeak indartu, eta ordezkapenak era egokian egiten direla ziurtatu. - Oinarrizko arreta unitateak berregituratu, eta norbanakoaren osasun txartelen kopurua doitu, profesionalen arreta-zama orekatzeko, eta kupoak berrantolatzeke honako irizpide hauen arabera: zahartzea, sakabanatze geografikoa, kronikotasuna, eta alderdi ekonomiko eta sozialak (migrazioa eta bestelakoak). - Oinarrizko Osasun Laguntzan diharduten erizainen gaitasun eta erantzukizunak sustatzea, hainbat soslai definituz. - Osasun eskualde oinarrizkoei gizarte-langileak bideratzen jarraitu, lan soziosanitarioa sustatzeko, bai asistentzia-eremuan, bai komunitarioan. - Etengabeko eta Larrialdietako Arretaren Erreforma Plana. Komunitate osoaren berdintasuna bermatuko duten eskualdeetako larrialdi-zerbitzuak garatu legegintzaldiaren barruan, denboraren araberako larrialdiei erantzuteko. - Larrialdi-zerbitzuen, ospitalez kanpoko larrialdien eta premiazko osasun-garraioaren koordinazio funtzional bakarra erraztu. - Oinarrizko Osasun Laguntzako profesionalek osasun-laguntzaren bigarren mailarekin duten komunikazioa eta koordinazioa erraztu, erien beharrei erantzun azkarra eman ahal izateko. 	9	PROZESUAN
3.3.10	<p>Asistentzia zerbitzuak "eri kronikoentzako arreta estrategia" baterantz bideratu. Estrategia horrek Oinarrizko Osasun Laguntzaren rola indartuko du eriek sisteman duten eragile nagusi gisa, eta haren integrazio- eta koordinazio-neurriak sustatuko ditu, bai larrialdi-zerbitzuekin bai arreta espezializatuarekin. Barruti bakoitzean erreferentziako espezialistak izendatu Barne Medikuntzan eta Geriatrian. Buruz burukoak ez diren kontsultak inplementatzen jarraitu. Erabakimen handiko eta diagnostiko azkarreko zirkuituak garatu.</p>	9	PROZESUAN
3.3.11	<p>Haur eta nerabeenganako arreta integrala sustatu, arreta berezia emanik gurasotasun positiboari, sare-lanari, arrisku psikosozialari, loditasunari, haur eta gazteen tabakoarekiko menpekotasunari, ludopatiari, eta abusuzko eta arriskuzko sexu-jarduerei. Beharrezkoak diren neurriak hartu pediatria-adina duten haurrentzako oinarrizko osasun-laguntza pediatrian espezialitatea duten medikuek eman dezaten.</p>	9	PROZESUAN

3.3.12	<p>2019-2023 epealdirako Osasun Mentalerako III. Plana garatu, Oinarrizko Osasun Laguntzan psikologia klinikoa ezartzeko aurrerapausoak eginez, buru-eritasunak dituztenentzat erabateko estaldura bermatuz osasun mentaleko zentroyen aldetik.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Osasun mentalaren arloan prebentzioa sustatu, Oinarrizko Osasun Laguntzarekin eta Osasun Publikoarekin koordinaturik. - Lehen gertaera psikotikoetan esku-hartze goiztiarra egiteko programa hedatu Tuterara eta Lizarrara. - Jokabide suiziden aitzinean Nafarroako Ekintza eta Prebentzio Plana berraztertu eta gaurkotu. - Nafarroan suizidio-tasa gutxitzea sustatu prebentzioaren bidez eta arriskuan dauden pertsonen arreta integrala eskainiz, banaka, familian, eskolan eta gizartean, jokabide suizidekin eta suizidioekin zerikusia duten albisteen tratamendu egokia sustatuz hedabideetan. - Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Arreta Eredua ezarri Lizarran. 	9	AMAITUTA
3.3.13	<p>Ebidentzian oinarrituriko medikuntza sustatu osasun-arloko esku-hartzeetan, eta ez ahalbidetu osasungintza publikoak behar bezalako egiaztatze zientifikorik gabeko jarduerak sustatzea eta garatzea (sasi-zientzia izenekoak, esaterako).</p>	9	AMAITUTA
3.3.14	<p>Sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko 103/2016 Foru Dekretuaren erabateko garapena, haren alderdi eta arlo orotan. Haurdunaldiaren etete farmakologiko legezkoa bermatu Nafarroako osasun barruti orotan. Horri buruzko teknikez O-NOZek eskaintzen duen informazioa handitu.</p>	9	PROZESUAN
3.3.15	<p>Osasungintzako profesionalen artean hezkuntza psikoemozionalaren arloko prestakuntza sustatu, asistentziaren maila guztietan, besteak beste genero-indarkeriako balizko kasuak atzemateko.</p>	9	PROZESUAN
3.3.16	<p>Prebentzio-kanpainak areagotu GIBaren eta sexu bidezko eritasunen intzidentziaren handitzea dela-eta. Profesionalekin eta erien elkarrekin lankidetzan egiten da lan hori, eta nerabeak izanen dira xedea. Listuaren bidezko GIB test azkarrak sustatu ditugu, ondoren baieztatze serologikoa egiteko, konfidentzialtasun-irizpideekin jokatuz betiere. Horrekin loturik, genero-indarkeriaren eta sexu bidezko infekzioen detekzio eta esku-hartze goiztiarrerako protokoloak sendotu eta sustatu. Gazteentzako berriazko zerbitzu berriak garatu.</p>	9	AMAITUTA
3.3.17	<p>Diziplina anitzeko unitate berriak garatu minbizi-tipologiak, neuro-endekapenezko eritasunenak eta lehentasunezko beste patologia batzuk aztertzeke.</p>	9	AMAITUTA
3.3.18	<p>Bizitzaren bukaeran arreta: zaintza aringarriak eta arreta integrala bermatu pertsona ororen bizitzaren bukaeran. Zaintza aringarriko erietxe barruko unitatea sortu Nafarroako Ospitalegunean. Etxez etxeko arreta indartu zaintza aringarria hartzen duten erietzetan, Oinarrizko Osasun Laguntzarekiko koordinazioa hobetuz.</p>	9	AMAITUTA

3.3.19	Aurretiazko borondatearen agiriaren aitortza eta betetzea sustatu. Heriotza Duineko Behatokiaren estrategiak bultzatu eta baliabidez hornitu, eta bizitzaren bukaerari buruzko ikerkuntza bultzatu. Osasungintzako langileen prestakuntza sendotu dolu-prozesuarekiko, eta eritasun terminala dutenentzako eta haien senideentzako arreta psikologikoa sustatu.	9	AMAITUTA
3.3.20	Gorte Nagusietan eutanasia despenalizatzeko legegintzako ekimenak sustatu.	9	AMAITUTA
3.3.21	Airearen kutsaduraren aurka (airearen kalitate-plana) eta zarata-kutsaduraren aurka borroka-plan bat ezarri eta garatu, aintzat harturik OMEk proposaturiko mugak, gaurko legedian jasotakoak baino murriztaileagoak.	9	PROZESUAN
3.3.22	Estatuko Gobernuari eskatu Estatuko Administrazio Orokorraren hiru mutualitateak (Muface, MUGEJU eta Isfas) Osasun Sistema Publikoan txertatzeko beharrezkoa den araudia gara dezala.	9	BETE GABEA
3.3.23	Osasungintzak aurrekontu egonkor eta nahikoa izanen duela ziurtatu: BPGaren % 6,5 ezarri xede gisa, hornidura publikoari eta osasun publikoaren, Oinarrizko Osasun Laguntzaren, inbertsioen eta ikerkuntzaren arloei aurrekontuak ematea lehenetsiz, eta farmazia gastuaren eta ospitalizazio gastuaren gehiegizko hazkundera kontrolatuz, baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzeko politikekin batera.	9	PROZESUAN
3.3.24	Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren antolaketa osasunean emaitzak erdiestera bideratu, osasun-harremanak medikalizatzeko eta baliabide teknologikoak intentsiboki erabiltzeko estrategiaren ordez. Osasun Sistemaren arintasuna, eraginkortasuna eta segurtasuna hobetu, kudeaketaren erdigunean jarriz itxaron-zerrenden murrizketa eta osasun-emaitzen lorpena.	9	PROZESUAN
3.3.25	Ospitale Arreta berregokitu, beste eredu bat definituz, komunitatearentzat irekiago bihurtuz, arreta gutxiago zatikatuz eta zerbitzuen arteko eta Oinarrizko Osasun Laguntzarekiko koordinazioa handituz.	9	PROZESUAN
3.3.26	Eraginkortasuna sustatuko duen, arlo orotan erabateko garapen profesionala bultzatuko duen, langileen asebetetzea hobetuko duen eta, espezialista-gabeziako testuinguru honetan, profesionalak erakartzea eta atxikitzea ahalbidetuko duen langile-politika garatu.	9	PROZESUAN
3.3.27	Oinarrizko Osasun Laguntzarako azpiegitura-plan bat sustatu, aurretiaz beharizanen azterketa eginik, eta populazio-gune berrietan esku-hartzea lehenetsiz eta arinduz.	9	AMAITUTA
3.3.28	Nafarroako Ospitalegunean eta Tuterako eta Lizarrako barrutietan Ospitale Inbertsioen (inbertsio teknologikoak eta azpiegituretakoak) Gida Plana osatu eta abiarazi. Plan horrek osatu eta bildu egin beharko ditu banakako logeletan ospitaleratzea areagotzeko aurreikusitako neurriak, NOGeko Ospitale Larrialdien eremua handitzea, laborategiaren berregituratzea (Luna proiektua), Tuteran hemodialisia, NOGen PET bat, ebakuntza-gela hibrido edo robotiko bat eta bigarren angiografoa ezartzea. Terapia geniko eta zelularrak garatzeko GMP/Gela Zuriaren garapena osatu.	9	PROZESUAN
3.3.29	Pertsonalizaturiko edo Doitasuneko Medikuntza Estrategia bat (RIS 3) garatu. Data center bat eta genoma banku bat sortu.	9	PROZESUAN

3.3.30	Ikerkuntza, irakaskuntza eta ezagutzaren kudeaketa: - Osasun-ikerkuntza publikoa bultzatu NUPekin lankidetzan. IDISNari egonkortasuna eman Ikerkuntza eta Berrikuntza Institutua izan dadin, hala nola prestakuntza- eta ikerketa-alorretan aliantzen eta sinergien sortzaile. IDISNaren zientzia-estrategiaren lidergo publikoa indartu. - Osasun-zentro publikoetan ikertzaileentzako deialdi-kopurua handitu (medikuntza, biologia, farmazia, biokimika, erizaintza, eta abar). - O-NOZeko asistentziarako langileek ikertzea sustatu.	9, 11	AMAITUTA
3.3.31	Osasun Sistema Publikoaren babes irmoa NUPen Medikuntza Fakultatea sortu eta garatzeari.	9, 11	AMAITUTA
3.3.32	2020an bukatuko den Nafarroako Osasun Planaren ebaluazioa eta gaurkotzea.	9	PROZESUAN
3.3.33	O-NOZeko osasungintzako profesionalak kudeaketaren alorrean prestakuntza aurreratua jaso dezaten apustua egin, hautaketarako irizpide gardenak erabiliz. Osasun-zentro publikoen kudeaketa progresiboki profesionalizatu, merituen eta gaitasunaren arabera.	9	AMAITUTA
3.3.34	Espetxeetako osasun alorreko eskumena bereganatu.	9	AMAITUTA
3.3.35	Humanizatze Planean aitzina egin eta sakondu.	9	AMAITUTA
3.3.36	Federazioen menpeko kirol-jarduerarekin zerikusia duen osasun-arretaren estaldura- eta hornidura-sistemak berraztertu eta gaurkotu.	9	PROZESUAN
3.3.37	Gure komunitatean erizaintzak duen rola garatu, indartu eta homogeneizatu, besteak beste honako neurri hauen bidez: - Erizaintzako profesionalentzat erantzukizun eta egiteko berriak esleitu, kontuan izanik haien gaitasuna handitu egin dela. - Bereziki indartu espezializatutako erizaintza. - Erizaintzako kontsulten garapen handiagoa bultzatu, ospitale-eremuan batez ere. - Erizaintzaren garapenari eta autonomiari lagundu, haren arlo orotan. - Kasuen kudeaketarako erizaintzaren lana sustatu eta inplementatu O-NOZen osasun-zerbitzu orotan. - Erizaintzaren ikerkuntza egin dezatela sustatu. - Erizaintzaren sendagaiak eta bestelako osasun-produktuak hartzeko baimena ematea sustatu, legedi berriarekin bat eginik.	9	PROZESUAN
3.3.38	Erantzukizuna hartu 112tik erantzun egokia emateko larrialdiei eta premiazko egoerei, denboraren menpekoak diren larrialdiei ahalik eta arretarik hoberena ematea lehenetsiz.	9	PROZESUAN
3.3.39	Osasun-garraioa koordinatu, zerbitzua kalitaterik handienarekin eskaintzeko eta baliabideak erarik eraginkorrean erabiltzeko xedez. - Nafarroan osasun garraioa arautzen duen foru dekretua gaurkotu - Larrialdietako osasun laguntzaren sistema eta larrialdietako osasun garraioaren sarea bateratu. Osasun Departamentuaren ardura zuzenaren pean jardunen dute zerbitzuok - Larrialdietarako osasun garraioko enpresa publiko bat sortzeko aukera aztertu.	1, 9	PROZESUAN
3.3.40	Osasungintzako profesional orori eginiko eraso fisiko eta psikikoen aitzinean babes-neurriak sustatu.	9	AMAITUTA
3.3.41	O-NOZek transplante programak beregana ditzan urratsak egin, Transplanteen Erakunde Nazionalarekin adosturik.	9	AMAITUTA

10-22/PES-00352. Galdera, 2 motako diabetesa duten pertsonei flash sentsoreak finantzatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2 motako diabetesa duten pertsonei flash sentsoreak finantzatzeari buruzkoa. Galdera 2022ko abenduaren 16ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du, zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu: "2 motako diabetes mellitusa duten 2.600 pertsonetatik –egunero sei ziztada gutxienez ere behar baitituzte gaixotasuna kontrolatzeko– zenbati finantzatzeko zaizkie flash sentsoreak 2023ko urtarrilean eta zer irizpideren bidez? Zein da Osasun Departamentuaren kronograma zehatza sentsore horiek finantzatzeko kalkuluen arabera haien beharrean dauden 2.600 pertsona horiei?". Hona Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

2 motako diabetes mellitusa izan eta intsulinarekin basal-bolus pautekin edo aurrez nahasitako intsulinekin tratatu beharra duten pazienteak 2.500 baino gehixeago dira gure komunitatean.

Paziente horiek zenbait ezaugarri bildu behar dituzte glukosa inestertziala monitorizatzeko sistemara biltzeko, eta lehenespenean ezartzen da, Prestazioen, Aseguramenduaren eta Finantzaketaren Batzordeak 2022ko uztailaren 21ean aurkeztu eta Osasun Sistema Nazionalako Lurraldearteko Kontseiluak 2022ko urriaren 7an onetsitako proposamenari jarraikiz.

2023ko lehen hiruhilekoan, aurreikusita dago ezaugarri hauetako bat duten pazienteak sistemara sartzen joatea:

– Ikusmen urria, mugapen funtzionalak, desgaitasuna, mendekotasuna edo nariadura kognitiboa duten pazienteak, horrek mugatzen edo galarazten badie hatza ziztatzea edo hipogluzemia egoera ezagutu, adierazi nahiz hari aurre egitea.

(Pazienteen kopurua 400-450 bitartekoa da baldin eta, hautagai diren pazienteen taldearen barruan, batera hartzen baditugu ezaugarri haue-

takoren bat duten pazienteak: ikusmen urria, mendekotasun larria eta erabatekoa Barthel eskalaren arabera, demenziaren diagnostikoa eta/edo instituzionalizaturik egotea.

– Hipogluzemia larriak (gertaera bat edo gehiago azken bi urteetan) izan dituzten pazienteak, hipogluzemia larria honela definituta: osasun laguntza edo hirugarren pertsona baten laguntza behar duena konpontzeko.

(45 pazienteek izan dute hipogluzemia larria; horietatik 16k intsulina-tratamendu intentsiboa hartzen zuten eta, beraz, monitorizazio sistema hauetarako hautagaiak ziren).

– 18 urte baino gutxiago dituzten pazienteak.

(Ez dago pauta terapeutiko horrekin erregistratutako pazienterik adin tarte horretan).

– Emakume haurdunak edo haurduntza programatzen ari direnak.

(Diabetesaren diagnostikoa zuten 27 paziente egon dira haurdun azken urtean, eta horietatik 17k zuten 2 motako diabetes mellitusaren diagnostikoa).

Oro har, lehenbiziko lehenespene horretan sartutako pazienteen kopurua 450-500 bitartekoa da.

Geroago, 2023ko lehen seihilekoan zehar gehituko zaizkie oharkabeko edo errepikatutako hipogluzemiak jasaten dituzten pazienteak eta lanean hipogluzemia gertatuz gero arrakastuak diren jarduerak egiten dituztenak.

Bigarren seihilekoan beste paziente batzuk gehituko zaizkie, gluzemiaren kontrola zaildu dezaketen prozesuak dituztenak, konplexutasun handikoak eta ezezagonkortasun klinikokoak.

2024an zehar gainerako pazienteak sartuko dira pixkanaka, muga-eguntzat ezarritako 2024ko abenduko data errespetatuz.

Hasiera batean, "a priori" aurreikuspena egin ahal izateko daturik ezean, ustez 1.000 bat paziente sartuko dira 2023an eta beste 1.000 bat paziente 2024an, lehenbiziko lehenespenean hautaturikoez gain.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 27an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

10-22/PES-00353. Galdera, INFONA 2022 Plana-Baso Suteek eragindako Larrialdietarako Babes Zibileko Planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, INFONA 2022 Plana-Baso Suteek eragindako Larrialdietarako Babes Zibileko Planari buruzkoa. Galdera 2022ko abenduaren 16ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikirik foro parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatzizko galdera egin du (PES-00353), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

Zer irizpide tekniko erabili da INFONA 2022 Planean (Baso Suteek eragindako Larrialdietarako Babes Zibileko Plana) udalerria arrisku handiko eremuetan duten toki entitateak sartzeko, autobabeserako udal plana ere behar dutenak?

Nafarroako Foru Komunitateko Baso Suteek eragindako Larrialdietarako Babes Zibileko Planak (hemendik aurrera, INFONA) xedetzat du administrazio publiko guztiek eraginkortasunez erantzutea baso suteek eragindako aparteko larrialdiei, behar diren bitartekoak eta baliabideak jarriko direla bermatuz.

Antolaketa eta jarduteko prozedura ezartzen dizkie Nafarroako Foru Komunitatearen titulartasuneko baliabide eta zerbitzuei eta beste administrazio publiko batzuek edo zuzenbide publikoko nahiz pribatuko entitateek esleitzen dituzketenei, eta honako plan hauek arautzen ditu: udalek baso suteei aurre egiteko jarduketa planak (hemendik aurrera, PAMIF), baso suteetarako autobabes planak (PAIF) eta funtsezko zenbait sektoretako plan berariazkoak.

Testuinguru horretan, PAMIF dokumentuetan biltzen da udalerrri batean baso sutea izateko arrisku handiko egoerei aurre egiteko ezarritako esparru organiko eta funtzionala, eta hor ezartzen dira hartu beharreko neurriak, larrialdiari aurre egiteko behar diren giza baliabideak eta materialak eta sutea gertatuz gero esku hartu behar luke ten agintari, erakunde eta zerbitzuak elkarrekin koordinatzeko eskema. Lurralde bat arrisku handiko eremutat (ZAR) identifikatzeak PAMIF plana nahitaez egin beharra dakar.

Nafarroan arrisku handiko eremuak ebaluatu eta identifikatzeko erabiltzen diren irizpideek azaroaren 15eko 893/2013 Errege Dekretuan ezarritakoa dute oinarri. Dekretu horrek baso suteen ondoriozko larrialdietarako babes zibila planifikatzeko oinarritzko jarraibidea onetsi zuen. II. tituluan ezartzen du zein izanzen diren plangintzaren oinarritzko elementuak.

Apartatu horren garapenean lankide izan dugu Madrilgo Complutense Unibertsitateko lantalde bat. Taldeburua Cristina Montiel Molina da, Geografia eta Historia Fakultateko katedraduna eta Geografia Politikoaren eta Baso Sozioekonomia-aren arloko ikerketa taldeko ikertzaile nagusia.

Bestalde, INFONA planaren 3. kapituluan bilduta dauden irizpide teknikoak hartu dira kontuan ebaluatzeko eta identifikatzeko zein toki entitate- ren udal mugarteak dauden arrisku handiko eremuetan (ZAR) eta, beraz, zein toki entitatek behar duten PAMIF bat.

Hona hemen plan horretarako esteka: <https://www.navarra.es/documentos/48192/20845937/Plan+INFONA.pdf/fbe73912-df15-9fdc-7f3a-669bb446bbfe?t=1669801082778>

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 20an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguí

10-22/PES-00354. Galdera, Salhaketa Nafarroak Barañaingo pisu batean presoak gizarteratzeko bultzatzen duen programa psiko-hezkuntzakoak auzoen artean sorrarazitako eragozpenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Salhaketa Nafarroak Barañaingo pisu batean presoak gizarteratzeko bultzatzen duen programa psiko-hezkuntzakoak auzoen artean sorrarazitako eragozpenei buruzkoa. Galdera 2022ko abenduaren 16ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak informazio eskaera egin du Salhaketa Nafarroak Barañaingo pisu batean presoak

gizarteratzeko bultzatzen duen programa psiko-hezkuntzakoak auzoen artean sorrarazitako eragozpenei buruz (10-22/ PES-00354). Hona hemen Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak ematen duen informazioa:

Dokumentu hau erantsi dugu:

PES-00354 001 EXPEDIENTE A

PES-00354 002 EXPEDIENTE B

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 10ean

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

(Oharra: Aipatutako eranskinak eskuragarri dituzte foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketarako Ágora sisteman).

